

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Erriberriko Antzerki Klasikoaren XII. Jaialdia uztailaren 15etik 31ra izango da


Nafarroako Gobernuak jaialdia 700.000 eurekin finantzatuko du

Martes, 07 de junio de 2011

Kultura eta Turismoko jarduneko funtzionario Juan Ramón Corpas Mauleonek, Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko zuzendari Alex Ruiz Pastor-ekin batera, jaialdiaren hamabigarren ediziorako aurreikusitako programazioa aurkeztu du.

Nafarroako Gobernuak jaialdia 700.000 eurekin finantzatu du, eta horri beste babesle batzuk erantsi behar zaizkio: Kultura Ministerioa, Erriberriko Udala eta Nafarroako Autopistak. Gainera, laguntzaile dira: Espainiako Kultur Ekintza, Oliteko Errege Jauregia eta Nafarroa Izendapenaren Kontseilu Arautzailea.

Aurtengo berrikuntzen artean, Alvaro Cubillo de Aragonen "El invisible príncipe del baúl" ikuskizuna dago, Almagroko Antzerki Klasikoaren Jaialdiarekin eta Almeriako Urrezko Mendearen Antzerki Jardunaldiarekin batera koprodukituta. Halaber, master class-a izango da eta bertan antzerki klasikoko hainbat modalitateko espezialista aipagarri batzuek jardungo dute.



2011ko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko programako kartela.

Koprodukzioa, master class eta antzerki klasikoaren inguruko esperientziak


Alvaro Cubillo de Aragonen "El invisible príncipe del baúl" obra uztailaren 19an taularatuko du Tatro del Velador konpainiak. Komediak emakume beraren maitasuna lortzeko borrokan diharduten bi anaia bikien istorioa kontatzen du. Jaiotzen lehena printze bat da eta, hala izanik, pribilegio guztiak jasotzen ditu; bien bitartean, anaia gazteak, bigarren jaiotzeagatik, bizitza txiro eta obedientziakoa du. Bi anaien arteko lehiak katramila dibertigarriak, engainuak eta dialektika-lehia zorrotzak ekarriko

ditu.

Barroko aurreko antzerkian hasteko ikastaro bat ere programatu da; haren bidez, Erdi Aroko eta Errenazimentuko antzerkiaren hurbilketa teoriko-praktiko bat egin nahi da Nao d'amores ekipoaren eskutik. Barroko aurreko antzerkiaren zentzu garaikidea jorratuko da, Ana Zamorarekin; Erdi Aroko eta Errenazimentuko fonetika-baliabide eta hizkuntza poetikoa, Vicente Fuentesekin; barroko aurreko interpretazio-teknikak, Ana Zamorarekin; txotxongiloen antzerkia antzerki klasikoko baliabide adierazgarri modura, David Faraco-rekin; Erdi Aroko eta Errenazimentuko musika eszenikoa, Alicia Lazarorekin; barroko aurreko errepertorioaren estetika, Deborah Macias-ekin; eta antzerki klasikoko dantza historiko eta herrikoia, Javier Garcia Avilarekin.

Gainera, Erriberriko Jauregian antzerki klasikoaren inguruko hainbat esperientziarekin gozatu ahal izango da. Horretarako, hiru saio programatu dira: lehenengoak jendea, oro har, eszena-estimuluetan sartzea bilatuko du, eta hori Dante Teatroyen "Blop" obrarekin lortuko da; bigarrenak, klasikoak umeei nola kontatu erakutsiko du, eta hori Teatro Bajo la Arenak egingo du "Erase una vez... Macbeth" lanaren bitartez: hirugarren saio batek, berriz, neurtitzetan antzerkiak duen esperientzia erakusten saiatuko da, La Navaren "Verso/osreV" obraren eskutik.

Bizitza eta heriotza, dantzak eta zuhaitza, Shakespeare eta antzerkiaren iturriak



Morboria Teatroyen "Barrocos" obrako irudia.

Jaialdian Nao d'amores eta Teatro da Cornucópia konpainiek "Danzas de la Muerte", obra taularatuko dute. Irudimen herrikoieko fantasia eta denboran egiten den bidaia da, heriotzaren absurdua desagertzen lagundu zuten mitoak biziberritzeko. Ikuskizuna haren inguruan dauden XV. eta XVI. mendeetako testu espainiar eta portugaldarretan inspiratuta dago. Muntaiak emanaldia, txotxongiloen antzerkia eta zuzeneko musika-interpretazioa barneratzen ditu garaiko musika-tresnekin. Gainera, Teatro do Mar konpainiak (Lisboa) "Solum" obra ere aurkeztuko du. Antzerki fisiko eta bisuala zirku eta akrobaziaren hizkuntzekin, dantzarekin, bideoarekin eta jatorrizko musikarekin nahastuko dira. "Solum" giza naturan geratzen da funtsean, gure kultur sustrai eta afektiboen eraldaketan garapen eta globalizazioko ideien aurrean. Naturaletik artifizialera, benetako gorputzetik gorputz digitalera, isolatzea partekatzea, funtsezko sustraitik gure garaiko fruitura. *Solum*, azkenean, altxa egingo da, bizitzaren zuhaitzari egiten zaion alegoria bat da, unibertsoa kontzientziaren metafora bat, indar sortzailearena eta izate guztiarena.

Bestalde, Shakespeare-k, antzerki isabeldarraren ordezkari garrantzitsua eta antzerki unibertsalaren erreferentzia etengabeak, izango du edizio honetan ere bere tokia; hain zuzen, "Mujeres de Shakespeare" antzezlanak, El Brujo protagonista duela; "Macbeth", Ur Teatro konpainiaren eskutik eta "Érase una vez...Macbeth", Teatro Bajo la Arena-k eskainia, ikusi ahal izango dira.

Oliten programatutako beste gune bat da "Iturriak: mitoak, kondaira eta errealitatea" (*Las fuentes: mito, leyenda y realidad*). Antzerki klasikoaren argumentuak jada existitzen diren istorioetatik elikatzen dira maiz: testuak garatzeko euskarri diren mitologiak, oroimen kolektiboan errotutako kondairetatik edo benetako gertaeretatik datoz. Esparru horretan antzeztuko dira "El joven burlador", La Calderona konpainiaren eskutik (Txile); "El Caballero de Olmedo", Murtziako Unibertsitateko La Barraca proiektuarena; "El castigo sin venganza", Rakatá-k eskainia; "María Estuardo", Tranvía Teatro/La Fundación konpainiarekin; eta "El cómico de los caminos", Pablo del Mundilloren eskutik.

Antzerki klasikoko maitasuna eta Lope de Vega

"Mil siglos de amor cualquier instante" jaialdian diseinatutako beste guneetako bat da. Maitasuna gai arrakastatsua zen beti antzerki klasikoan. Lope de Vegaren lerro honekin hura islatuta ikusi zen hainbat eraren inguruan hausnartuko dugu, eta egileek eman zioten tratamenduaren inguruan. Horretako aukeratu diren piezak honako hauek izan dira: Los locos de Valencia", Teatros de la Generalitat-en eskutik; "La

Celestina", Secuencia 3-ren eskutik; Valleko Unibertsitatearen (Kolonbia) "Égloga de Plácida y Vitoriano"; eta Raquel Anduezaen "Entre llamas arder sin encenderse".

Jaialdiak "Lope de Vega eta Nafarroa" izeneko beste atal bat ere barnean hartzen du. Egileak bere obretan sarritan aipatzen zuen Nafarroa, eta obra horietako asko lurralde horretan kokatu zituen. Horregatik, iaz, Barranco de Peñalen-en topatutako "El príncipe despeñado" obra aurkeztu zen, eta oraingo honetan, Teatro Defondo konpainiak Tuteran garatzen den "El maestro de danzar" taularatuko du.

Hitzaldi-zikloa eta Barroko aurreko Antzerkian Hasteko Ikastaroa

Ardoaren Museoan egingo diren hitzaldi publiko batzuk ere programatu dira, eta baita topalekuak ere aktore, zuzendari eta antzerki klasikoko adituekin. Haiek guztiek teatro klasikoa izandako esperientziak eta egindako ibilbideak kontatuko dituzte...." Nao d'amores-en 10 urte: iragana eta etorkizunaren arteko ibilbidea", Ana Zamorarekin; "Heriotza dantzan, hitzaldia dramatizatu" Francesc Massip-en eskutik eta "Aktorea antzerki klasikoan", Luis Miguel Cintrarekin.

Bestalde, "E-class(3)" edo Arte Dramatikoko Goi Eskoletako Topalekuak klasikoen inguruan" ez da aurrean ikasleen antzezpenetara mugatuko; Barroko aurreko Antzerkian Hasteko Ikastaroarekin osagarriak izango dira, eta ikasleek prestakuntza espezializatua jasoko dute aktoreen prestakuntzak gutxi jorratutako alorre buruz. Gainera, parte-hartzaileen egonaldia zabaldu da aurkeztutako lan guztiak ezagutu ditzaten eta benetan antzerkiaren lan, hausnarketa, ezagutzaren... topagunea izan dadin.

Beste atal batzuk

Kaleak beste hizkuntza eta teknika batzuek planteatutako istorioak hartzen ditu. Oraingo honetan, proposamenak ondorengoak dira: Morborearen "Barrocos"; Malabar-en, "Las exquisitas marquesas" (Frantzia), "La Caja de Pandora", Maintomano-ren eskutik (Frantzia); "Antes de la función", T'ombligo taldearena; del Teatro do Mar-en (Lisboa) "Solum"; "Égloga de Plácida y Vitoriano", Proyecto La Barraca-Valleko Unibertsitatearena (Kolonbia); "El Caballero de Olmedo" Proyecto La Barraca-ren eskutik, Murtziako Unibertsitatea; "El joven burlador". Proyecto La Barraca. La Calderona (Txile); eta "El cómico de los caminos", Pablo del Mundillo-rena.

"Pertsonaiaren ardoa" beste atal bat da, eta bertan zuzendari, etnologo, pertsonaia eta ardo bat hausnartzeko elkartzen diren giltzarriak dira. Oliteko Ardoaren Museoan egingo da uztailaren 19, 23 eta 30ean, 19:30ean, eta ondorengo etnologoak izango dira bertan: Pilar Garcia Granero, Julian Algarra eta Concha Vecino.

Erakusketari dagokionez, aurrean Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazionalaren jantzien zati bat ikusi ahal izango da.

Informazioa eta sarreraren salmenta

Sarrerak ekainaren 24an salduko dira 012 Infolocal-ean (012 eta 948 21 70 12 telefono-zenbakiak), www.cfnavarra.es/oliteteatro eta www.entradas.com webguneetan eta Caja Navarra nahiz Nafarroako Ipar Kutzaren kutxazainetan.

Leihatilan uztailaren 11tik aurrera salduko dira Oliteko Erdi Aroko Galerietan, Carlos III.a plazako lurpean. Telefonoa: 948. 741885, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 22:00etara.

Telefonoz eta Internetez erositako sarrerak Caja Navarra eta Nafarroako Ipar Kutzaren kutxazainetan jaso ahal izango dira uztailaren 11tik aurrera edo Internetez erositako sarrerak inprimatzeko sistemarekin.

La Cava eta Vianako Printzea ikastetxeko ikuskizunetako sarreraren prezioa 10 eurokoa da; 8 eurokoa gazte-txartelarekin eta 65 urte baino gehiago duten pertsonentzat. *E-Class-eko ikuskizunetarako prezioa 3 eurokoa da. Jauregiko ikuskizunak 3 euroan eta Uxueko Elizakoak ere 3 euroan.

"Pertsonaiaren ardoa" atalak edukiera mugatua du; beraz, gonbidapenak egun berean jasoko dira 18:00etatik aurrera, Erdi Aroko Galerietan.